

# FISIOPATOLOGIA

**Osasuna:** erabateko ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera, ez bakarrik gaixotasunen gabezia.

**Gaixotasuna:** osasun egoeraren aldaketa, hau da, ongizate fisikoaren galera, aldi baterako naiz betirako.

**Etiologia:** gaixotasunaren kausa, exogenoa edo endogenoa izan daitekeena

**Patogenia:** kausek lesioa edo funtzio asaldura nola eragiten duten azaltzen duena

**Fisiopatologia:** lesioek edo funtzio anatomikoen asaldurak adierazpen klinikoak nola sortzen dituzten azaltzen duena

**Anatomia patologikoa:** sortzen diren egiturazko alterazioak aztertzen dituzten miaketa mikroskopiko eta makroskopikoak

**Patokronia:** gaixotasunaren garapena denboran zehar (gaixotasuna dinamikoa delako)

**Semiologia=sintomatologia=adierazpen klinikoak:**

**Sindromea:** adierazpen klinikoek gaixotasuna susmatzea eragiten dute

**Sinua:** neurtu daitezkeen gauzak: sukarra, tentsioa...

**Sintomak:** gaixoak ematen digun informazioa, ezin duguna neurtu

**Klinika:** medikuak gaixoaren ondoan egiten duen jarduera, bai osasuna berreskuratzeko eta bai egoera psikiko-fisikoa hobetzeko: diagnostikoa, pronostikoa eta tratamendua

**Zelularen endekapena:** lesio itzulgarria da, kausa desagertzen bada, uraren metaketa edo beste substantzia batzuen ondorioz. Normaltasunera itzuli edo heriotzara joan daiteke

**Nekrosia:** lesio itzulezinen bidezko zelularen heriotza patologikoa, metabolitoen pilaketaren bidez, kanpo eragileengatik. Hantura eragingo du

**Apoptosia:** heriotz zelular programatua, ez da bortitza. Zitoplasma uzkurto eta DNA degradatzen da, nukleoa kondentsatu, kromatina zatitu, eta mintzean burbuilak eratzen dira. Gero fagozitosia gertatuko da. Hala ere, kasu batzuetan patologikoa izan daiteke.

**Piknosisa:** kromatinak apoptosian ilargi erdiko forma hartzea, kondentsatzea

**Kariorexisa:** apoptosian kromatina zatitzea

**Zaiosisa:** apoptosian mintzean burbuilak eratzea

**Onkosisa:** nekrosi prozesu morfologikoa. Zelulako edema baten ondorioz nukleoa disolbatu eta kromatina fragmentatu eta kondentsatzen da, azkenean organuluaren edema eta mintz zitoplasmatikoa apurtuz

**Iskemia:** arterien odol fluxua eteteagatik gertatzen den nekrosia

**Hantura:** ehun konjuntibo baskularren erreakzioa, non eragile kimikoen ondorioz tokian edo sistematikoki adierazpen kliniko estereotipatuak (ez-espezifikoak) sortzen diren. Aldiak: odol-baso aldia, hasierako leukozito-erantzuna, eta leukozito-erantzun berantiarra.

**Kimiotaxisa:** substantzia kimiko batzuen bidez zelulak erakarri

**Opsonizazioa:** molekula batzuek inguratu, markatu

**Exudatzea:** inflamazio baten ondorioz odol-hodietatik likidoa ateratzea, proteina eta odol zelula askorekin.

**Trasudadoa:** odol hodietatik zelulen arteko gunera atera den likidoa, baina ez inflamazio kasuan.

**Orbaina:** jatorrizko ehunaren ordean ehun konjuntiboa egotea, erraiak bere funtzioa galtzen du.

**Granuloma:** linfuzito, makrofago eta fibroblastoen metaketa tokiko hanturaren kronifikatzean, zelula inmuneen masa esferiko bat eratzen da eliminatu ezin diren substantzia arrotzak isolatzeko

**Zitosina proinflamatorioak:** IL-1, IL-6, IL-18, TNF

**Neutrofilia:** infekzioan neutrofilo kopurua handitzea

**Astenia:** ahultasuna, nekea

**Aldi akutuko erreaktanteak:** hantura zitokinen bidez sortzen dira gibelean, eta funtzioa hantura-aktibatua indizea igotzea da. Odol analisisian VSG (globulu ondoratze abiadura), proteinograma (albumina gutxitu eta alfa eta beta globulinak igotzea), prokaltzitonina eta PCR (proteina C erreaktiboa) ikusten dira.

**HESS (hantura erantzun sistemikoaren sindromea):** erasoaren aurreko erantzun organiko orokorra da. Gorputz tenperatura 38 gradutik gora edo 36 gradutik behera dago, takikardia, takipnea, leukopenia edo leukozitosisia (leukozito gutxi edo asko)

**Tumorea:** zelulak multiplikatzea eta masa bat sortzea, onbera edo gaiztoa izan daiteke

**Kantzerra:** tumore solido batzuen morfologia

**Neoplasia:** mutazioen ondorioz zelulak inkontrolatuki eta asko zatitzean, eta ondorengo tranmititzean ezaugarri hori. Apoptosirako gaitasuna galtzen da. Zelula neoplasikoek ahalmen bereziak dituzte ostalarien defentsa mekanismoei aurre egiteko. Gehienetan telomerasa aktibitatea berreskuratzen dute.

**Onkogenesisa:** neoplasia zelulek ahalmen bereziak eskuratzea eta ostalarien defentsa mekanismoei ihes egitea, minbizia garatuz, mutazio multipleen bidez.

**Hayflick fenomeno:** zelula normaletan zatitze ahalmen mugatua edukitzea, zatiketa bakoitzean telomero zati bat galduz.

**Angiogenesisia:** odol hodi berriak sortzea, oxigeno eta nutriente gehiago behar direnean. Minbizi zelulek honetarako gaitasuna dute, faktore angiogenikoak ekoizten dituzte.

**Katekolaminak:** odolera doazen neurotransmisoreak (adrenalina, noradrenalina, dopamina), giltzurrun gaineko gurutetan sintetizatzen direnak, eta estresarekin lotuta daude.

**Kortisola:** gurutin suprarenalak estres egoeratan sintetizatzen duen hormona. Besteak beste glukemia handitu eta sistema inmunea inhibitzen ditu.

**Estenosis:** hodietan buxadurak egotea, hodietako argia estutzea, adib. tumoreengatik.

**Kakexia:** gorpuzkera sindromea: astenia, anorexia eta pisu galera. Ondorioz gustuaren alterazioak, digestio asaldurak, sukarra etab. agertu daitezke.

**Anaplasia:** minbizi zelulak desberdinak ez egotea, indiferentziatuak izatea.

**Birulentzia:** lesio handiago edo txikiagoak eragiteko ahalmena, kuantitatiboa.

**Erreserborioa:** mikroorganismoak bizi eta ugaltzen diren lekua.

**Fomitesak:** kontaminatuak egon daitezkeen lekuak.

**Prodromo aldia:** gaixotasun infekzioso baten ondorioz gaizki sentitzen hasten zarenean, sintomak agertu aurretik.

**Konbalezentzia:** gaixotasun infekzioso baten sintomak desagertzen direnean, baina oraindik mikroorganismoa ez denean suntsitu.

**SEPSIS:** eragile bizi batek eragindako HESS, hasiera azkarra duena. Gaixotasun infekzioso baten larritasuna da, ostalariak eragindakoa. HESSaren irizpideak betetzen ditu: basozabaldura orokorra izatea, tentsioa jaitea etab.

**Infekzio subklinikoa:** adierazpen klinikorik gabeko gaixotasun infekzioso, baina epidemiologian arriskutsua dela, kutsatu daitekeelako.

**Traumatismoa:** eragile fisiko baten ondoriozko lesioa, adibidez golpe bat hartzea, masa batek organismo baten aurka jotzen duenean gertatzen dena.

**Konmozioa:** traumatismoa pairatzen denean, baina ez denean ikusten.

**Kontusioa:** traumatismoak eragindako lesioa ikusten da, adib. ubeldura, baina ez dago zauririk.

**Zianosis:** zirkulazio txarragatik ehun batzuetan oxigeno falta egotea, eta horregatik adib. behatzak urdin kolorekoak agertzea. Hemoglobina erreduzituagatik azaltzen da kolore urdina.

**Bradipnea:** arnasketa motela, arnas maiztasuna txikia denean.

**Bradikardia:** bihotz maiztasuna jaitea, <60lpm.

**Gy (Gray):** erradiazioaren unitatea, materia masa 1 kg-k energia Julio 1 xurgatzearen baliokidea.

**Toxikoa:** kontzentrazio erlatiboki txikitan ondorio kaltegarriak dituen substantzia exogenoa.

**Pozoina:** indar handiko toxikoa.

**Dosi hilgarria 50:** animalia talde homogeneousko populazioaren %50ri heriotza eragiten dion substantzia kantitatea, gorputzeko pisu kilogramoko.

**Sukarra:** gorputzeko tenperatura eguneko bariazio normaletik gora dagoenean, hipotalamoko tenperatura erregulazailer zentroko kontrol puntua gorago dagoelako (38-41°C)

**Prostaglandina E2:** endotelioak sortzen du, puntu termostatikoko berria ezartzeko eta termogenesis erantzuna emateko. Honen ondoren sukarra sortuko da.

**Takipnea:** arnas maiztasuna handitzea

**Takikardia:** bihotz maiztasuna igotzea, bentrakuluak azkarregi uzurtzen direnean, >100lpm.

**Anamnesisa:** pazienteari galderak egitea, gero datu horiek guztiak historia klinikoak biltzeko.

**Analisi zitogenetikoa:** kariotipoa aztertzea, hau da, zenbat kromosoma dauden, haien egitura etab

**Gonosomopatia:** X eta Y sexu kromosomei lotutako herentziazko gaixotasunak (normaleak Xri lotuta).

**Espasmo koronarioa:** arterian gantza pilatzean (aterosklerosia), bat batean arteria horretako odol fluxua etetea, arteria uzurtuz.

**Tronbosia:** odol hodietan edo bihotzean koagulo bat eratzea.

**Birika kongestioa eta disnea:** presio diastolikoa handitua dagoenez, ezkerreko aurikula ezin da ondo bete, eta beraz ez da nahiko odol oxigenatu iritsiko. Arnasteko ezintasuna, itotze sentazioa dago, birika arteria odolez beteta dago baina aurikulak ezin du dena jaso.

**Angina:** bularreko presioa, mina, arteria koronarioen gutxiegitasun baten adierazlea.

**Shock kardiogenikoa:** bihotzaren kausaz ezin direnean gorputzeko zelulak odoleztatu, normalean bihotz gutxiegitasunagatik.

**Polarizazioa:** zelula guztien egoera, non mintzaren bi aldeetan ioi kontzentrazio ezberdinaren ondorioz karga elektriko desberdina dagoen.

**Automatismoa:** nodo sinuaurikularreko eta nodo aurikulobentrakularreko ezaugarria, zelulek markapaso izateko gaitasuna dute, hau da, erritmikoki despolarizazioak sortzen dituzte.

**Elektrokardiograma (EKG):** bihotz osoko zelula miokardikoaren potentzialak jasotzen dituen azterketa proba, bihotz zikloan gertatzen diren aldaketa elektrikoaren erregistroa da.

**Ingurgitazio yugularra:** zain yugularren presioa aztertzea.

**Hepatomegalia:** gibelaren tamainaren handitze patologikoa.

**Esplenomegalia:** barea tamainaz handitzea, behar baino gehiago.

**Arritmia:** kitzika elektrikoaren edozein alterazio, hau da, bihotz maiztasunean aldaketak gertatzen direnean.

**Palpitazioak:** bihotza modu bortitz batean edo azeleratuta taupaka ari denaren sentazioak, bularrean edo lepoan.

**Sinkopea:** garunera oxigeno nahikoa iristen ez denez bihotza eta arnasketa geratzea, eta konortea galtzea.

**Iatrogenia:** jarduera mediko batengatik osasun egoera kaltetzen denean.

**Bihotz blokeoa:** kitzikak zailtasunak dituen bihotz osora zabaltzeko, eta ondorioz eroate atzerapena dago, edo ez dago eroterik.

**Ezker bentrikuloko eyekzio frakzioa:** diastole bukaeran bentrikulok sistole uzkurdura bakoitzean kanporatzen duen bolumen frakzioa, normalean %55-75.

**Kardiomegalia:** bihotzaren bolumena anormalki handitzea.

**Gangrena:** ehunak hiltzea odola iristen ez delako edo infekzio larri batengatik.

**Arteroesklerosia:** arterietako paretak elastizitatea galtzen dutenean eta gogorrakoak eta lodiagoak bihurtzen direnean.

**Aneurisma:** arteria edo zain baten dilatazio anormala.

**Enfisema:** bronkio terminalen zabalkuntza, albeoloetako hormen suntsiketarekin. Birikako gaixotasun buxatzaile kroniko bat da.

**Bronkitis kronikoa:** birikako gaixotasun buxatzaile kroniko bat da, bronkioen inflamazio bat dago, eta bronkioen jariapen mukoso bat jariatzen dute, ondorioz eztula eta arnasteko zailtasunak sortuz.

**Shunt fenomeno:** albeoloak odoleztatze normala duenean, baina gaizki aireztatuta daudenean, airearen banaketa anormala dago.

**Atelektasia:** albeoloak zabaldu ezin direnean, kolapsoa dagoenean.

**Espazio hilaren fenomeno:** odolaren banaketa anormala dagoenean.

**Polipnea:** arnasketaren maiztasuna eta bolumena handitzea.

**Inotropismoa:** uzkurtzeko gaitasuna

**Birikako edema akutua:** likido metaketa albeoloetan eta birika interstizioan

**Ortopnea:** etzanda egotean arnasteko zailtasunak izatea

**Krepitazioak:** patologia batzuetan gorputzak egiten dituen soinuak, gaixotasunak detektatzeko balio dutenak, adibidez arnas bideetan likidoa metatzean.